

## **Klaustro / Eskola Kontseilu honi,**

### **Gaiaren azalpena**

Teknologia hezkuntza prozesuan hartzen ari diren gehiegizko zentralitateaz gure kezka plazaratu nahi dugu. Honekin ez dugu progresoarekin kontra jo nahi. Ez dugu ukatzen tresna horiek izan dezaketen balioa. Baina hezkuntzako zentroa bihurtzeak, gure ustez, kaltegarria da umeentzat, eta gizarte osoarentzat.

Tresna hauen neurriaz hausnarketa egin behar dela uste dugu. Hasteko eta behin, adin bakoitzean nola egokitu behar den neurtu behar dela uste dugu. Gehiegizko iruditzen zaigu Haur eta Lehen Hezkuntzan hainbeste orduz pantailarekin ibiltzea.

Honen haritik, gogoratu nahi dugu nola Silicon Valleyko adituek beraien seme-alabei ordenagailua ukatzen dieten 12 urte bete arte, eta 16 bete arte erabilera asko mugatzen dieten.

### **Teknologiaren gehiegizko erabilerak izan ditzakeen kalteak (ikus erreferentziak)**

1.- Ikastetxe askotan haririk gabeko konexioaren alde egiten dute. Uhin elektromagnetikoen menpe luzaro egoteak osasunarentzat kaltegarria dela erakusten dute ikerketa ugari; eta ez dago ikerketa bakar bat ere kaltegarria ez direla frogatzeko. Zalantza egonez gero, zuhurrena hauek ez erabiltzea dela argi dagoela uste dugu. Uhin elektromagnetikoen kalteak honelako sintomak agertzen dituzte: nekea, haserrea, kontzentratzeko zailtasunak...

2.- Ordenagailuak gehiegi erabiltzeak umeen garapen emozionalean eta kognitiboan eragiten du.

3.- Sedentarisismoa eta obesitatea eragiten ditu.

4.- Argi geratzen ari da ordenagailuekin ikasleek gutxiago ikusten dutela liburuekin baino. Zergatik? Beste arrazoi batzuen artean, ikasleak errazago distraitzen direlako (“jolasten egoten dira”) eta iturri bakan eta askotan ez fidagarrietatik hartzeko joera dutelako. Askotan tresna hauek erabiltzera behartzen dituzte oraindik formaturik egon gabe eta kriteriorik osatu gabe.

5.- Umeen sozializazioan kalte egiten du. Umeek ikasten dute beren pareekin era birtualean, eta ez errealean, harremanetan sartzen.

6.- Umeek pribazitatea galtzen dute. Askotan teknologia hauek erabiltzen baitira informazioarekin negoziatzen duten enprekin. Gogora dezagun interneten behin egon dena, betiko gelditzen dela interneten.

### **Proposatzen diren neurriak**

Horregatik guztiarengatik, klaustro/eskola kontseilu honi honelako neurriak har ditzan eskatzen diogu:

1.- Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ordenagailurik (ia) ez erabiltzea. DBHn neurrian erabiltzea, egunean ordubete gehienez neurri egokia izan liteke.

2.- Interneterako sarrera kablearen bidez egin dadila. Umeak uhin elektromagnetikoez babestu behar dira.

3.- Familiei askatasuna eman behar zaie nahi duten ordenagailua, nahi duten sistema eragilearekin, erabiltzeko. Software librearen alde jo behar da.

4.- Informazioarekin negoziatzen duten enprekin harremanak mugatu behar dira, edo hautsi. Gure umeen pribazitatea babestu behar da.

### **Erreferentziak**

Wi-fi uhinen kalteen inguruko ikerketak:

[https://www.escuelasinfifi.org/sites/default/files/imagenes/zhou\\_et\\_al\\_2017.pdf](https://www.escuelasinfifi.org/sites/default/files/imagenes/zhou_et_al_2017.pdf)

<https://www.elettrosensibili.it/wp-content/uploads/2017/10/CEFALEA.pdf>

<https://www.isnr-jnt.org/article/view/16679>

<http://tapnewswire.com/2019/04/open-letter-by-uk-medical-doctors-health-and-safety-of-wi-fi-and-mobile-phones/>

<http://europepmc.org/article/PMC/3672148>

<https://www.independent.co.uk/news/education/schools/brightly-lit-classrooms-hamper-ability-of-pupils-to-concentrate-401510.html>

Teknologiaren gehiegizko erabilerak izan ditzakeen kalteak:

Kontzentratzeko gaitasuna gutxitzen dutela:

<https://bioinitiative.org/wp-content/uploads/pdfs/BioInitiativeReport-RF-Color-Charts.pdf>

Autismoarekin ere lotzen dute:

[https://bioinitiative.org/wp-content/uploads/pdfs/sec20\\_2012\\_Findings\\_in\\_Autism.pdf](https://bioinitiative.org/wp-content/uploads/pdfs/sec20_2012_Findings_in_Autism.pdf)

3. Santaliestra-Pasías AM, Mouratidou T, Verbestel V, et al. Food Consumption and Screen-Based Sedentary Behaviors in European Adolescents: The HELENA Study. *Arch Pediatr Adolesc Med.* 2012;166(11):1010–1020. doi:10.1001/archpediatrics.2012.646 (JAMA, Q1)

**"Conclusion** Increased television viewing and computer and Internet use during adolescence is associated with higher odds of consumption of sweetened beverages and lower odds of fruit consumption."

<https://jamanetwork.com/journals/jamapediatrics/fullarticle/1355389?resultClick=3>

4 Gure pribazitatea urratzen duten enpresak:

<https://www.bbc.com/mundo/noticias-36797839>

<https://www.24horas.cl/tendencias/ciencia-tecnologia/los-6-links-que-te-dejaran-claro-cuanto-sabe-google-de-ti-1498843>

<https://es.slideshare.net/lizpiciosa/el-portafolio-en-la-educacin-inicial-28257121>

5 Silicon Valleykoen umeez ez dute ordenagailurik erailtzen

<https://www.businessinsider.com/silicon-valley-parents-raising-their-kids-tech-free-red-flag-2018-2?IR=T>